

Problema interno

TXILLARDEGI



HERRI honetan bolarak izaten dira. Modak. Eta haize-balak bezala, pasa egiten dira halako batez, eta ahaztu. Nahiz bolada horiek sortzen dituzten arazoak hor-txe gelditu, tinko.

Egun hauetan, adibidez, berriro bota dute batzuk lelo 'berria' (oso lelo zaharra, egia esan). Alegia, Euskal Herrian dugun istilu azkengabea, euskaldunon arteko arazo dela, «un problema interno entre vascos». Madriliko eta Parisko aginte politikoek ez omen dute ezertxo ere ikustekorik istilu honetan.

Egia esan, «violentos» eta «demócratas» erdibiketa famatu horrek helburu horixe zeukan: badaude euskaldun bakezaleak, batetik; eta euskaldun gerrazaleak, bestetik. Madril, begira: gure arteko herria horiek noiz amaituko zai...

Bego horietan hipotesia. Hots, aste honetanxe (astero bezalaxe, hobeiki esan) Madriliko eta Parisko gobernuen esku-hartze lotsagaldia ikusi dugu nabarmen. Xabier Makazaga hegoarra, 1987 eta 1990 artean Frantziako gortzetan preso egon ondoren (gehi bizileku bortsatuaz lutzatu), berriro arrestatu dute eta Parisa eraman. Eta aste honetanxe, izen-lerrokada luzearen zati tiki bat besterik ez ematekotan, *Madrilera* eraman dituzte Berstain, Irastortza, Urdangarin eta Igarategi gizasemeak; baita Lizarribar, Urbistondo eta Murua emakumezkoak ere.

Arazoa «gure artekoa» omen da: baina gura batera arras elkar-harturik ematen dute Madrilik eta Parisek.

Egurtutako horiek guztiak Hegoaldeko aberkideak dira. Baina zapalketa bikoitz hori ez da Hegoaldekoen kontra bakarrik mamitzen. Inork ez du Espainia aldean Filipe Bidart iparrak jasaten duen galbarioa ezagutu: bizi guztiko zigorra hartu ondoren, jakina denez, isolamendu osoan pasa ditu urte osoak. Mueska iparrak 9 urte darama Frantziako preso-degietan, eta Tiotte Etxebestek are osasuna ere galduta du Parisko agintearen zigortez.

Presoak Ahuiemendiz bi aldeetakoak dira, gudariak ere bai, borroka abertzalea ere bai, Auto-Determinazioaren lege-ukoa Madrilin eta Parisen finkatzen da. Bietan batera.

Zer esan nahi du, gauzak horretara, gure arazo nazionala «gure arteko moldatu-ezinean» sortzen dela?

Iparralde eguneko mezua

XAN KOSKARAT



IPARRALDE eguna zela eta, gauza asko entzun ditugu. EMA zen antolatzailea. Hauxe zioen:

«...Gure hastapeneko helburua, Ezker abertzalea bildu, batu nahi ginuen. Abertzaleen mintzamoldea, borroka dinamika bati lotua izan zedin. Abertzaleasuna borroka bat da. Koerentziak izan nahi badugu, egunero bi aldeetako harremanak azkartu behar ditugu, egunero gure herrietako kontserbatismoak hautsi behar ditugu, egunero gure militantziak, auzitan ala juseen aintzinean agertzen direnen heinekoa izan behar du.

Oraindik aintz badugu egiteko. Ezker abertzale mugimenduen heinak ez baigaitu satisfatzen. Lehenagoko gure arteko hausturak ezin ditugu biziarazi. Gure indarrak ezin ditugu zaitu. Gu, 1991z geroz, abertzaleen batasunari buruzko urratsetan engaiatu gara, Euskal Batasunarekin batera. Ildo hortarik jarraituko dugu, zabaldu nahi dugu Patxa Oildartzen, berregituratze horrek harreman ondoriozkoak Herri Batasunarekin ekar ditzan nahi dugu.

Gaur egun, bestalde, ipar euskal herrian, abertzale guztiak ados gara instituzio berezi baten eskatzeko. Jakiteak nork duen lehenik eskakizun hori plazaratu ez du inportantzia izpirik. Beharrezkoa duguna orain da, denen artean, egitura horren mamia definitzea. Guk Eraikitzen elkartek agertu lana landu dugu. Gaurko egiazko elkartasuna, proiektu politiko baten inguruan obratuko dugu. Gainerateko guztiak pistoloterkiak dira. Hots gaurko egoerari buru egiteko, erreflektzioari esker, bide berri batzu urra ditzagun elkarrekin, biharko bideak finkatzeko...».

●egin

Ezin zitekeen bestela izan

Gipuzkoa sutan zegoen eta Algortan Eustakio Mendizabal hil zuten 1973. urtean, Juan Carlos printzea Donostiara iritsi zen eta oso mezu gogorra, itxaropen guztiak baztertzen zituen, ekarri zuen. Bi urte geroago Franco, Oriente jauregitik eta Juan Carlos aldamean zuela, pozik agertzen zen Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru ki-deunen aurkako bost heriotza-zigorrenatik. Generalisimoa hildakoan, Juan Carlosek faktikoetan faktikoekin diren NATO eta EEBB botereekin (garai hartan, hurrenez hurren, Alexander Haig eta Gerard Ford-en zuzendaritzapean zeudenekin) Erreformaren mugak hesitu egin zituen. Euskal Herriak handik gutxira izan zuen horien berri: lurralde zatiketa, alderdi independentistak debekatzea, Konstituzio militarista eta deszentralizazio mugatua.

Erregea Gemikara iritsi zenean logikak ez zuten beste aukerarik uzten. Monarka berre-



RIKARDO & NACHO / EL MUNDO

●EL MUNDO

Ieltsin aitzakia bila al dabil bere aurkarietarik libratzeko?

Boris Ieltsinek, errusiarrek aukeratutako lehendakariak, erabakita al dauka, nahiz eta indarraren bidez izan, demokraziara iristeko bere bidea ezartzea? Parlamentuaren gainean inolako aginpiderik ez

INAKI EGAÑA

IMPRESIONES

ZUZENDARIARI

Historiaren ikuspegi antiunibertsalak

Ikusten egon nintzen momentu batean Egibar eta Aozien arteko solasaldia, eta Egibarek esaitzen zion Aoziri:

— zuekin berba egingo dugu benetako abertzaleak izaten zaretenean, hau da, zuen politika marxismoaren mendean ez daukazuenean.

Eta, ondo begiratuta, arrazoia zeukan, zeren kontu egin behar baita nola marxismoa teoria bat den, unibertsaltasun bat aldarrikatzen duena, eta historiaren filosofia bat eraikitzen du, hasten delarik Egipto eta Mesopotamian, eta horri unibersala deritzo! Garbi dago, bestaldekik, herri eta nazioak gutietsi egiten dituela. Modernotasun

bat aldarrikatzen duela non lekurik ez da goen norberaren erroendako, eta hemendik diskurtso hori bat dator inperio baruko diskurtso modernista guztiekin (Darwinismoarekin adibidez).

Baina Egibarri egin ahal dakiok kritika berbera, ez marxismoagatik, baina bai kristautasunagatik. Erljio honek historiaren ikuspegi bat dauka, eta historia unibertsala (hau bat etortzea aurrekoekin!) Mesopotamia hartan ere hasten da, eta handik zabalduko da mundu guztira, herrien historia berbera; horren aurretikakoa infernuzkoa da, gerorakoa, gutxi da salbatzen dena. Beraz, Euskal Herriaren historiaren gehiena zapaldua da, ezabatua, eta ignoratua.

Eta halako pentsamoldeak gainera, modernismoaren eta metamodernismoaren ere ikurrak dira!

Atera kontuak hemendik zenbat min eta zelako azpizatea egiten dioten euskal nazionalismoari, eta internazionalismoari ere.

Beraz, egiteke dago oraindik halako ignorante ez den historiaren kontzeptio bat. Ignorante da harroak bezala, ez ikusi egiten duela, ez ezagutzen azkenean, eta huts egiten.

Hala ere, guk ez dugu euren hutsartean jausko, eta bai batari bai besteari, eta aldaerei ere, euren eta dagokien arrazoia emango diegu, egokiak diren neurrin halako edo holako gertakizunak deskribatu eta argitzeke, baina absolututasunik ukatuz, giza teoriak baitira.

R.G.

Soraluze (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA

Almodovar



Gogoratzen dut musiko gisa lagun zendun McNamara, zinemagile bezela gero zu agertu zinen hara. Hollywoodera hurbildu eta ia Oscar bat atara, orain Donostian zara izar handien gisara. Aitonak dio maritxua da, ilobak doa modara; nire ustetan Ebroz azpiko zuzendari onena da.

ZIGOR ENBEITA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URÍA

Gerentee: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZBEN ETXEZAHARRETA

Publizitate: MARI JOSÉ SAKASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS

Capitan Haya 1.2a.28029 Madril / # 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabillak / 20160 Lasarte-Oria / # 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egortza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna. 16-1 / 20010 Donostia / # 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monsegua, 45-13. esk. (Grimas dorrea) / 31011 Iruña / # 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. Leher / 48003 Bilbo / # 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1 / 503 Posta kutsutia, / 64100 Baiona / # 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11